



**SEGURTASUNEN SAILBURUAREN AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN
BAITA ERTZAINZAKO LANGILEEN GARAPEN PROFESIONALERAKO
SISTEMAREN DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU PROIEKTUA EGITEKO
PROZEDURA HASTEA.**

6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, (aurrerantzean XOEPL), hau bezalako arauak egiteko prozedura antolatzen du eta, horretarako, 12.1. artikuluan ezartzen du horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla prozedurok.

Agindu honetan aipatzen den prozedura antolatzeko, nahitaezkoa da, hasieratik bertatik, araua egitearen egokitasunari buruzko erabaki bat hartzea eta horren beharrari eta bideragarritasunari buruzko hausnarketa bat egitea ere bai.

XOEPLen 13.1. artikulua ezartzen du prozedura hasteko aginduak eduki hauek izango dituela:

LEHENENGOA. - Prozedura hastea eta hasiera hori agintzeko eskumena

1. Agindu honen xedea da 180/2021 Dekretua, uztailaren 20koa, Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemarena, aldatzeko Dekretu-proiektua egiteko prozeduraren hasiera agintzea.
2. Prozeduraren hasiera agintzeko eskumenari dagokionez, XOEPLEk 12.1 artikuluan haxe ezartzen du: *“Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da.”*

Hortaz, ondorioa da Segurtasuneko sailburuaren aginduz hasi behar dela proiektua egiteko prozedura.

BIGARRENA. - Proiektuaren xedea eta helburua.

Arauaren xedea da 180/2021 Dekretua, uztailaren 20koa, Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemarena, aldatzea; Dekretu horretako 2. eranskinean jasota dauden ezarpen-aldiko mailaketa-deialdietan aplikagarriak diren balorazio-irizpideak egokitzeko, baita 3. eranskinean jasota dauden ezarpen-aldiko jardunaren urteroko ebaluazioa egiteko irizpideak ere.



HIRUGARRENA. - Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Erabiltzen den eskumenaren lege-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina (aurrerantzean EAEPLTB) onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretutik eratortzen da; garapen profesionalerako sistemei buruzko 117.1. artikuluan hauxe ezartzen baitu:

“1. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena daukan sailak eta udalerriek laneko garapen profesionalerako sistemak ezarri ahal izango dituzte polizia-kidegoetako langileentzat, jardun eta jokabide profesionala baloratzearen ondorio gisa”.

Aurrekoaren ildotik, EAEPLTBren 110. eta 115. artikuluek jasotzen dute garapen profesionalaren maila aitortuz gero, Ertzaintzan garapen profesionaleko osagarri bat jasoko dela urtero.

Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistema uztailaren 20ko 180/2021 Dekretuak arautzen du.

Administrazioaren eta sindikatueta ordezkarien arteko negoziazioen ondoren, EAEPLTBren 125. artikuluan aurreikusten den Negoziazio Mahaiaren 2025eko martxoaren 14ko bileran onartu zen, besteak beste, Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemaren uztailaren 20ko 180/2021 Dekretua aldatzeko proposamena.

Era berean, Ertzaintzaren Kontseiluaren 2025eko apirilaren 16ko bileraren ondoren egiaztatu zen Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemaren uztailaren 20ko 180/2021 Dekretua aldatzeko proposamenak Segurtasun Sailaren eta ERNE eta ESAN sindikatueta ordezkarien aldeko txostena jaso duela, EUSPEL abstenitu baitzen.

LAUGARRENA. - Antolamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Xedapen Orokor bat da, Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemaren uztailaren 20ko 180/2021 Dekretua aldatuko du, baina ez da beste aldaketarik edo araudiaren gaineko eraginik aurreikusten.

BOSGARRENA. Generoaren arabera eragina.

Izapidetzen ari den arau-proiektuak ez die herritarren legezko interesei eragiten, baizik eta, modu eskusiboan, Ertzaintzaren zerbitzura lan egiten duten langileei. Gainera, proposatzen diren aldaketen helburua da mailaketa-deialdietan eta jardunaren urteroko ebaluazioetan aplikagarriak diren balorazio-irizpideak egokitzea; Ertzaintzak erakunde gisa dituen antolaketa-beharrak eta egitura horretan langileek gora egiteko dituzten interes indibidualak bateragarriak izan daitezen ahaleginduz.

Hortaz, ez da generoaren araberako eraginaren txostena egin behar, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 20 artikuluan aurreikusten duena; izan ere, generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeari buruzko Jarraibideak (Gobernu Kontseiluak onartutakoak) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren eta arau-proiektu honi Jarraibide horietako Lehenengoaren bigarren puntuko a) eta d) letretan ezarritako salbuespena aplikatzen zaio: (a) “Generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak, dela emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako, dela eragin hori hutsaren hurrengo delako; horrelakoen artean egongo dira betiere herritarren eskubideetan eta bidezko interesetan inolako eraginik ez duten proiektuak” eta (d) “Indarrean dauden arauak aldatzea xede dutenak, aldaketa funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez”.

Kasu horretan, generoaren araberako txostena egin ordez, genero ikuspegitik garrantzirik ez daukala behar bezala justifikatzen duen txosten bat egin behar da, jarraibide horien II. eranskinean aurreikusita bezala, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari eskatuko zaio dagokion egiaztapen-txostena eman dezala.

SEIGARRENA. - Aurrekontuan izango duen eragina.

Espedientearen barruan, Segurtasun Saileko Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak 2025eko maiatzaren 15ean egindako memoria ekonomikoa dago, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta memoria horretan aztertzen da izapidetzen ari den aldaketa onartzeak aurrekontuetan izango duen eragina.

Memoria ekonomikoan aipatzen da, karrera profesionalaren kostu guztiaren aurrekontua eginda, aurreikusitako kostu ekonomikoa ez dela handiagoa izango eta, beraz, proposatutako aldaketek ez dutela aurrekontuetan eraginik.

ZAZPIGARRENA. - Bidezko izapide eta txostenak

1.- XOEPLen 13.1 e) artikuluan ezarritakoa betetzeko, hasiera-aginduak jaso behar du gaia dela-eta bidezko iritzitako izapide eta txostenen zerrenda. Horrez gain, artikulua hauetan ezarritako prozedura-berezitasunak kontuan hartu behar dira: Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. eta 57. artikuluetan, Lege hori aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak egindako aldaketak kontuan hartuta, Eusko Legebiltzarrerara bidaltzeari buruzkoak.

Dekretu-proiektuaren testua idazteko hasiera-agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri eta kontuan hartuko dira lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, baita aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzen jotzen diren kontsulten emaitzetara ondoen egokitzen direnak ere.

Dekretu-proiektua idatzi aurretik, ez da beharrezkotzat jotzen aurretiko kontsulta publikoaren izapidea egitea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean APAPEL) 133. artikuluan zein XOEPLek 11. artikuluan aurreikusten dutena; Dekretu-proiektuak, modu eksklusiboan, Ertzaintzaren zerbitzura lan egiten duten langileei eragiten baitie.

2. Agindu honen bosgarren atalean azaldutakoaren arabera, ez da generoaren araberrako eraginaren ebaluazioari buruzko txostena sartuko; eta beraz, behar bezala justifikatu beharko da genero ikuspegitik garrantzirik ez daukala, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzkoak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoak diren Jarraibideen II. eranskinean aurreikusita bezala.

3.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egin behar da, nahitaez. Memoria horretan bildu edo berretsiko da, hasiera-aginduen inguruan, proposamena egin duen organoaren iritziz azpimarragarria izan daitekeen edozein alderdi, eta, nolanahi ere,

XOEPLen 15. artikuluko 3. ataleko edukiak. Memoria horren barruan agindu-proiektuaren azterketa juridikoa agertu behar da.

4.- Espedientearen barruan, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak 2025eko maiatzaren 15ean emandako memoria ekonomikoa dago.

5.- Dokumentu horiek eginda, Dekretu-proiektuak Segurtasuneko sailburuaren aldez aurreko onarpena jaso beharko du, Agindu bidez.

6.- Hasiera-agindua eta ematen den aldez aurreko onarpen-agindua egoitza elektronikoaren iragarki taulan argitaratuko dira, arau-proiektuarekin batera, XOEPLen 13.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta arau-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren izapidetzeko Oinarritzko Ereduaren seigarren atalarekin bat etorritik. Eredu hori 2025eko maiatzaren 13ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zen, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera. Argitaratutakoan, automatikoki egingo zaie jakinarazpena sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrek egin ditzaten.

7.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoaren arabera, horretan xedatutako publizitatearen agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz jendaurrean jartzeko, Legegunean argitaratuko da. Espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak ere argitaratuko dira.

8.- Aldez aurretiko onarpenaren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren arabera, Lege hori aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak egindako aldaketa kontuan hartuta.

9.- Arau-xedapenak lantzeko indarrean dagoen prozeduraren arabera, XOEPLen 16. artikuluen arabera, bidezkoztat jo daitezke erregelamendu bidez sartu diren edota funtsezkoak ez diren txosten eta Administrazio Orokorreko sailei egindako kontsulta hauek, eta horiek guztiak aldi berean eta epe berean (hilabeteko epea) egingo dira, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

- a) Generoaren ikuspegitik eraginik ez daukalako egiaztapen-txostena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egindakoa; martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Testu Bategina onartzen duenak, 20.6 artikuluan ezarritakoa betetzeko.
 - b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzeari buruzkoa; hala ezartzen dutelako 233/2012 Dekretuak, azaroaren 6koak, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, 2. artikuluan eta 389/2024 Dekretuak, azaroaren 26koak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 14.2 artikuluan.
 - c) Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena, 16/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoak, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hauxe ezartzen du: «1. *Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz*»; eta txosten hori nahitaezkoa da xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren barruan.
- Hortaz, nahitaezko txostena bada ere, nahikoa izango da arau-eraginaren azterketari buruzko memorian txosten hori aipatzea, proiektatutako arauaren xedeak ez baitauka inolako eraginik enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gainean.
- d) Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horrek ezartzen du enplegu publikoaren eskumena duen sailari dagokiola “*Enplegu publikoaren alorreko arau*

orokorren proiektuak egitea eta nahitaezko txostena egitea beste sail batzuek sustatutako legeen aurreproiektuei eta xedapen orokorren proiektuei buruz, enplegu publikoaren alorreko gaiei eragiten dieten alderdi guztietan” Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 17. artikulua ezartzen du Enplegu Publikoko Zuzendaritzak eman behar dituela txosten horiek.

- e) Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 17.1.d) artikulua ezartzen duenaren arabera. Artikulu horrek ezartzen du Aurrekontu Zuzendaritzari dagokiola *“Eduki ekonomiko esanguratsua duten arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta erabakiei buruzko txostenak egitea, aurrekontu-eragina ebaluatzeko eta dagozkion doitze-neurriak proposatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (testu bategin hori urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen)”*.

10.- XOEPLen 17. artikuluan aurreikusten diren entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak eta langileen ordezkarietako negoziazioa direla eta, Lege horren 17.1 artikuluan xedatutakoa betetzen da; izan ere, horren arabera, arau-proiektuak herritarren eskubideei eta interes legitimoei eragiten ez badie, ez da beharrezkoa izango entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egitea.

Kasu honetan, negoziazio kolektiboa dagoeneko egin da, Negoziazio Mahaiaren bidez. Era berean, proiektu-proposamena Ertzaintzaren Kontseilutik pasatu da dagoeneko. Espedientean kasuan kasuko egiaztagiria sartu dira.

11. Ez da beharrezkoa beste Administrazioei kontsulta-izapidea egitea (XOEPLen 18. artikulua), aldaketak Ertzaintzako langileei baino ez baitie eragiten.

12. XOEPLen 19. artikulua arabera, nahitaezkoak eta funtsezkoak diren txosten eta irizpen hauek eskatu behar dira:

- a) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eman behar duen Ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena, arau hauetan ezarritakoaren arabera: XOEPLen 23. artikulua, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testuategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren III Izenburuko IV kapituluko aurreikuspenekin lotuta eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoarekin lotuta.

Txosten hori emateko 15 eguneko epea dago, arau-xedapenaren proiektuaren testua eta, harekin batera, proiektuaren edukia zein den, aurkeztu behar den dokumentazio guztia Kontrol Ekonomikoko Bulegoan jasotzen direnetik zenbatzen hasita.

- b) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, XOEPLen 25.artikuluaren ezarritakoaren arabera eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikulua aplikatuta.

9/2004 Lege horren 26. artikulua ezartzen du Batzordearen irizpenak emateko epea horren audientzia aurreikusten duen xedapenean adierazitakoa dela, eta, adierazita ez badago, bi hilabetekoa.

13. 8/2016 Legeak, ekainaren 2koak, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzekoak, 56. artikuluan atal berri bat sartzen du eta, horren arabera, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten.

14. Prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, eta, hor aurrekariak eta egindako izapideak zehaztuko dira, XOEPLen 24.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko.

15. 7/1981 Legeak, ekainaren 30ekoak, Jaurlaritzaren Legeari buruzkoak, 18. artikuluko c) letran ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzari dagokio Dekretu bidez onartzea Eusko Legebiltzarrak emandako legeak garatzeko eta betearazteko Erregelamenduak.

16. Dekretu-proiektua publizitatzeari eta argitaratzeari dagokionez, XOEPLen 29. artikuluekin bat eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64.

artikuluaren ezarritakoaren arabera, erregelamenduzko arauak Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Legegunean ere argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezarritakoa betetzeko.

ZORTZIGARRENA. - Idazteko modua.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluekin eta XOEPLen 14.5 artikuluekin bat etorritik, testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, bertsio linguistikoen lanketan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz araua idazteko prozesu osoan zehar. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretiko onarpen-izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen.

Halaber, eta XOEPLen 27.3 artikulua ezartzen duena betetzeko, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

BEDERATZIGARRENA: - Espedientearen instrukzioaz arduratzen den organoa

Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza izango da, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HAMARGARRENA. - Arauaren egokitasunaren justifikazioa.

Dekretu-proiektu hau ez dago Urteko Araugintza Planaren barruan. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginak 125. artikuluan aurreikusten duen negoziazio-mahaian ordezkariak duten sindikatuarekin negoziatu ondoren, 2025eko martxoaren 14an, Ertzaintzako langileen lan baldintzei buruzko akordio bat lortu da eta

horrek eskatzen du dagozkion arauak izapidetzea. Garapen profesionaleko sistemaren kasu zehatzari dagokionez, ezinbestekoa 180/2021 Dekretua, uztailaren 20koa, Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemarena, aldatzea. Aldaketa-proposamen hori Negoziatio Mahaian eta Ertzaintzaren Kontseiluan onartu da. Aurretik azaldutakoagatik eta XOEPLen 13.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz,

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA. - Agindu honen xedea da Ertzaintzako langileen garapen profesionalerako sistemaren uztailaren 20ko 180/2021 Dekretua aldatzeko Dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea.

BIGARRENA. - Hasiera-agindu hau Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzara bidaltzea, proiektua instruituko duen organoa baita.

HIRUGARRENA. - Agindu hau EAEko araudiaren Legegunea atarian ere argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13 d) artikuluan eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.c artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eta Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun Atarian ere argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

LAUGARRENA. - Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzea, 6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, 13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitaratutakoan, automatikoki egingo zaie jakinarazpena sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

Bingen Zupiria Gorostidi
SEGURTASUNeko SAILBURUA
CONSEJERO DE SEGURIDAD